

## **Nobedadeak:**

Gure enpresaren helburua saskibaloian globetrotters moduko ekintzetarako zapatila espezial batzuk egitea da, zapatila hauen berezitasuna haien bultzakada sistema da, zapatilen zolata bultzakada dezente egiten du erabilerak ahalik eta salto handien egiteko, baina salto edo bultzakada erabileraren esku dago ere, depende bere gaitasun fisikoak zeintzuk diren, baita ere, estetikoki zapatilak politak dira horregatik kaletik erabili ahal daitezke ere. Produktu hau saskibaloian ez ofizialetan ere erabili ahal dira, zeren eta azkenean zapatilak dira, ezin dira partidu ofizialetan erabili normatibarengatik.

## **Prestazioak:**

Gure enpresaren helburua kirol jakin batzuen kirolarien errendimendua hobetzea da, bere lana errazteko edo bere esfortzua murrizteko. Hainbat kirolean erabili daitezke gure produktua, adibidez: atletismoan, saskibaloian, etab. Hau da, salto egitea behar den kirolean. Hau kontuan izanda, gure eragozpen nagusia federazioak izan ahal dira kirol ofizialetan inplementatzeko nahia izatekotan, baina gure ideia nagusia ikuslea harrizteko egiten diren ekintzetan erabiltzea da, hau da, 'show' ekintzak. Idei honekin, kirolen alde erakusgarriena ateratzen saiatuko gara, adibidez, globetrottersek egiten dituzten ekintzak ahalik eta mate edo jokaldi bisualenak sortzen lagun ditzakete gure zapatilak.

Ateratzen dugun ondorioa, gure produktuak dituen ezaugarriak ez ditugula nahi era serioan erabili lehiaketa ofizialetan, NBA bezala, baizik eta ikuslea entretenitzeko erabili nahi dugu gure produktua.

## **Pertsonalizazioa:**

Diru gehiago edo enpresa handiagoa denean, web orria hobetu egingo dugu, erroreak zuzentzeko eta errazteko erabilera eta jende gehiago kontratatuko dugu bezeroentzako arreta hobetzeko, duda edo arazo bat izanez gero, laguntza pertsonalizatuagoa izateko, hau da, zapatilak izan ahal dituzten arazoan konponketarako edo disfuntzionalitate bat konpontzeko espezialitatuta dauden langileak izateko ideia dugu

## **Lana erraztea:**

Gure produktuak bezeroaren errendimendua kirolean hobetzea du helburu, baina, lehen esan dugun moduan, ez dira kirol profesionalean erabiltzeko. Pentsatzen dugu gure produktuak dituen ezaugarriak (inpultsoa salto eta korrika egiterakoan) oso lagungarriak izan ahal direla kirolak biziagoak egiteko, hau da, ikusleari ere kirol jakin batzuk (adibidez saskibaloia) erakargarriagoak egitea eragin ahalko dituzte gure zapatilak.

## **Diseinua:**

Gure diseinua ahalik eta lehiakor gehien izatea saiatuko gara baina era berean, modan egotea ahal den neurrian saiatuko gara. Diseinu erakarria eta sostenagarria sortzen saiatuko gara, material birziklagarriekin eta kutsatzen ez dituen materialekin. Diseinuaren inguruan aipatu nahi dugun beste zerbitzu bat pertsonalizazioa da. Gure enpresaren beste helburu bat, gure bezero guztiak erosten dituzten zapatila guztiak pertsonalizatzeko aukera izatea da, aukera zabalak eskaintzen diseinuari dagokionez (Koloreak, pertsonen izenak jartzeko aukera...) Horrela, gure markaren statusa handitzea gerta daiteke gure bezeroei pertsonalizazioak gustatzen bazaizkie.

## **Marka/Statusa:**

Gure marka ahalik eta status gehien lortzeko, ez gara kiroleko arloan orokortuko, baizik eta gure produktua espezifiko denez kirolaren arloaren barruan, kiroleko zapatila berezietan espezializatuko garenez, arlo horren barruan ahalik eta eksklusiboagoak izaten saiatuko gara gure produktua ohikoa ez delako oraingo merkatuan, baina jende guztiak edo gehienak gure produktua erosteko gai izateko saiatuko gara.

## **Prezioak:**

Gure produktuaren errendimendua eta diseinua ikusita, gure produktua hasieran, beste zapatilen moduan, 85-150 euro inguruan egongo dira (ez dira oso garestiak atletismo, saskibaloia eta kirol gehiagotan inplementatzea nahi dugulako, bestela ere, ez ziren legalak izango) Prezioan ere pertsonalizazioa sartzen da, pertsonalizazioa oinarritzko prezioa 20/30 euro igotzen ditu. Modelo gehiago sortuko ditugula etorkizunean, baita gure statusa igo ditzakeela kontuan hartuz, nahiko posible da etorkizunean prezioak handiagoak izatea, gure produktuen materialen kalitatea hobetuz gero eta dena ondo joaten bada, noski.

## **Arriskua murriztea:**

Produktuak 2 hilabeteko bermea izango du. Arazoak izaten baditu dendara eraman dezakezu eta han aste batean gehienez konponduta egongo da, hau da, konponbidea baldin badauka gure produktua, zapatila berdinak konpontzen eta jabeari bueltatzen saiatuko gara, baina kasu konkretu batzuetan non gure adituak ez direnean gai konpontzeko, beste zapatila berri batzuk eskuratzeko aukera emango dugu edota dirua bueltatzeko aukera ere, hori eroslearen esku egongo da.

## **Eskuragarritasuna:**

Leku guztietan eskuragarri egon ahal da, dendetan salduko delako, baina ez edozein dendatan, baizik eta saskibaloiko denda konkretu batzuetan adibidez Bilbon dagoen 'Basket Country' denda edo 'JD' moduko dendak, kirolaz nahiz modaz arduratzen diren dendak eta hainbat marka (handiak nahiz ez hain prestigiosoak) hartzen dituztenak. Internet webguneetan izango da eskuragarria ere, leku guztietatik eskatu ahal izateko zapatilen pedidua leku guztietara heltzeko. Gainera zapatilen enpresak herrialde guztietatik egongo dira, produktua produzitzen, orduan, kiroleko zapatila gehiagotan egongo dira.

## **Erabilerraztasuna:**

Zapatila ez da erabiltzeko zaila izango, jarri behar dituzu eta kordioak izango ditu. Aire aktibatu edo desaktibatu ahal dezakezu, palanka txiki edo botoi batekin. Baina erabiltzeko erraza izango da.